

# Sariaren Arauak



**“Café Bar Bilbao”  
Teatro Laburreko Saria  
Premio Teatro Breve**

# 2022

## “Cafe Bar Bilbao”

**Teatro Laburreko gidaien lehiaketa**

CAFE BAR BILBAO-k,  
TARTEAN teatroak lagunduta,  
**“Cafe Bar Bilbao”**  
**Teatro Laburreko Testuen Sariak**  
antolatzen du eta lehiaketaren 20. ediziorako deia egiten du.

## Lehiatzeko arauak:

- 1.- Cafe-teatorako edo **formato txikiko antzerki-lanetarako testuak** aurkeztuko dira. "Formato txikia"-k zera esan nahi du, lanaren beharrianak (teknikoak zein artistikoak) txikiak direla eta haren ekoizpena eta banaketa "erreza" izan daitekela. Lanaren luzera 30 minututako antzezlan bati dagokiona izango da, gutxi gorabegera.
  - 2.- Modalitate bi egongo dira: **euskarazkoa eta gaztelaniazkoa**. Modalitate bakarrera aurkeztu daiteke obra bakoitza. Gaztelaniazko lanen egileek Euskal Erkidego edo Nafarroakoak izan beharko dute.
  - 3.-- Saria **800 €** (zergak baino lehen) izango da. Modalitate bietan.
    - Antzezlanak Cafe Bar Bilbao webean publikatuko dira.
    - TARTEAN teatroak lan hauen irakurketa dramatizatua antolatuko du. Irakurketa LAUTAN HIRU Antzerki Festibalean programatuko da.
    - Cafe Bar Bilbao harremanetan dago Bilboko Pabiloi 6 antzokiarekin. Saritutako lanen bat antzoki horretako Antzerki Laburraren Festibalean parte hartzen badu, Cafe Bar Bilbaok sari eta laguntza berezia emango dio.
  - 4.- **Testuak jatorrizkoak**, antzeztu gabeak, argitaratu gabeak eta aurretik beste lehiaketaren batean saritu gabeak izango dira. Beste lanen batetik egindako itzulpenak edo moldaketak ez dira jatorrizkotzat joko.
  - 5.- Testuak emailaz bidaliko dira Cafe Bar Bilbao-ra:  
[info@bilbao-cafebar.com](mailto:info@bilbao-cafebar.com)  
2022ko Abenduaren 31 (barne) bitartean.
- Bi fitxategi bidaliko dira, holan izendatuta:  
X-testua y X-datuak (X = antzezlanaren izenburua)  
**X-testua** fitxategian, testua joango da, egilea identifikatu barik.  
**X-datuak** fitxategian egilearen datuak: Izen-abizenak, bizilekua, telefono zenbakia...
- Horrez gain gutun bat bidaliko da Cafe Bar Bilbaora
- Cafe Bar Bilbao - Plaza Berria, 6 - 48005 Bilbao**
- ..... eta bertan **NANaren fotokopia** bat eta **Zinpeko aitortpena**, sinatuta, zera adierazten: "Teatro testua jatorrizkoa eta argitaratu gabea dela, ez dela beste lan batetik moldatua edo antzezturiko lan batena, ez dela izan beste lehiaketaren batean saritua eta ez dela itzulpena".

6.- Epaimahaiak kontuan hartuko du lanaren **kalitatea** (teatrala, literaturarena...) eta **taularatzeko erreztasuna**, hau da, lehenengo arauan apaitutako formato txikiko antzerki-lanetarako testua izatea.

7.- **Epaimahaiak ahalmen guztia** edukiko du sariak emateko edo eman barik uzteko, hala balegokio. Arauok interpretatu ahal izango ditu beharrezkoa balitz, baita epaimahaikoen jardun-arauak finkatu ere. Epaimahaikoen erabakia apelaezina da.

8.- Saritutako lanen **eskubideak egilearenak** izango dira betiere, baina Cafe Bar Bilbaok baimena izango du lana bere webean publikatzeko edo liburu batean argitaratzeko, bai eta irakurketa dramatizatu bat antolatzeko (TARTEAN teatroa).

9.- Edozelan ere, saritutako lanak argitaratu edo antzeztuko balira, Cafe Bibaok esku hartu barik ere, publizitaterako euskarri grafiko eta ikus-entzunezko guztietan **sari hau jaso duela aipatu** beharko da.

10.- Lehiaketa honetan parte hartzeak arauok osorik onartzen direla esan nahi du.